



LAN-ARLOKO JURISDIKZIOARIBURUZKO ON-LINE IKASTAROKO DEIALDIA

Justizia Administrazioako Zuzendaritzak Lan-Arloko Jurisdikzioari buruzko 20 orduko ikastaroa eskaintzen du, on-line modalitatean.

Baldintzak:

1. Ikastaroa, bereziki, Euskadiko Justizia Administrazioako karrerako eta bitarteko funtzionarioentzako zuzenduta dago, onartutakoen eta baztertutakoen behin behineko zerrenda argitaratzen duen Ebazpenaren datan jardunean daudenentzako; eta aurreko lau urteetan ez dute ikastaroa osatu. 300 plaza. **Ez du lan-poltsetarako balio.**

2. Auto-matrikula, hurrengo estekaren bitartez egingo da:

- [Lan arloko Jurisdikzio on-line izen ematea](#)

Modu honen bidez aurkeztutako eskabideak bakarrik hartuko dira kontuan.

3. AUTO-MATRIKULA: Epea **irailaren 15ean** irekiko da eta **irailaren 29an** itxiko da goizeko **09:00etan**.
4. Urriaren 9an, posta elektronikoko bat bidaliko zaie ikastaroan onartutako pertsoneri, ikastaroan sartzeko jarraibideak emanez. **GARRANTZITSUA: Posta elektronikoko erretilu guztietan begiratzea gomendatzen da, Spam-ena barne.**
5. IKASTAROA: **Urriaren 9an** hasiko da, **14:00etan**, eta **urriaren 22an** amaituko da, **goizeko 09:00etan**. Epe horretan ikasleak on-line sar daitezke ikastarora.
6. Ikastaroa moduluz osatuta dago. Modulu bakoitza amaitzeko, autoebaluazio-test bat egin behar da. Test horri esker, ikasleak zenbat aurreratu duen jakingo du, eta moduluak behar beste errepikatzeko aukera izango du, modulua behar den moduan ulertu eta ikasi arte.
7. Egitaraua:
 - ✓ Gai orokorrak.
 - ✓ Fase deklaratihoa.
 - ✓ Errekurtsoak.
 - ✓ Betearazpena prozesu sozialean.
 - ✓ Lan-zuzenbidearen eta Gizarte Segurantzaren oinarritzko kontzeptuak.
8. Azterketa egiteko eskubidea izateko, ikasleek ikastaroko **test guztiak eginak izan beharko dituzte.**
9. AZTERKETA: Ikastaroa amaitua, **urriaren 23an, 14:00etan**, irekiko da azterketa on-line egiteko epea, eta **urriaren 30an** itxiko da, **goizeko 09:00etan**.
10. Azterketaren epea amaituta, gaitutut dutenek diploma jasoko dute **"Nire karpeta" - Euskadiko Sare Elektronikoa- atalean.**